

HARREMANAK:

Gure proiektua ikastolako beharretara zuzendua dagoenez gure proiektuan eragin gehiena dutenen iritzia jakin nahi izan ditugu eta horretarako galdera batzuk prestatu ditugu.

Eragin handienetakoa duen pertsonetako bat Amaia da, ikastolako zuzendaria. Bera izango da proiektua aurrera eramaten lagunduko diguna.

Bere erantzunak oso positiboak dira, ideia oso ona dela esan digu eta behar dugun laguntza emateko prest dago. Berak jakinarazi gintuen elgoibarko ikastolak proiektu hori martxan zuela eta informazioa oso erabilgarria izan lezakela.

Elgoibarko Ikastolarekin kontaktuan jarri gara, duela gutxi beraiek soinu semaforo bat egiteko proiektua martxan jarri baitzuten. Beraiek beren burua laguntzeko prest eskaini zuten arazo baten aurrean aurkituz gero.

Beste pertsona garrantzitsuetako bat Nikolas da, ikastolako atezaina. Bera da materiala eskuratzen eta instalakuntzan laguntzeko prest dagoena.

Ikastolako irakasleren batekin hitz egitea pentsatu genuen. Hartaz, Mari Jose irakaslearekin hitz egin genuen, bera baita gaiaren inguruan interesa azalduko zuen irakaslea. "Nire ustez etorkizuneko gaixotasuna gorreria izango da, beraz prebentzio mota hau oso ona da haurrak txikitatik hezi behar direlako beste tonu batean hitz egitera."

Ion Unanue irakasleak, zirkuitu elektrikoari buruzko informazioa baliagarria eman zigun, bera baita gehien lagun diezagukena zirkuituarekin.

Ikastolako ikasle batekin hitz egitea beharrezkoa iruditu zitzaigun eta horrela egin genuen. Bera arazoaren lekuko zen eta arazoa aurkeztu ondoren bera erabat ados azaldu zen, gure proiektua aurrera eramanez lagunduz eta proiektuak arrakasta izango zuela adieraziz.

Kalean egindako galdetegitik jasotako aportazioa diseinuari buruzkoa da. Semaforoari belarri itxura emateko proposamena jaso genuen.